


Azalera handiko saltokietako eta elikadura alorreko kate handietako salmentak % 1,6 igo dira Euskal AEn 2023ko ekainean

Lehenengo sei hilekoko salmenten metatua % 0,2 hazi da

Eustaten datuen arabera, eta aurreko urteko hil beraren aldean, Azalera handiko saltokietako eta elikadura alorreko kate handietako salmentak % 1,6 igo ziren Euskal AEn 2023ko ekainean, prezio konstanteetan eta lan-egutegiko baldintza homogeneotan.

Aurreko hilaren aldean (2023ko maiatza), eta dagozkion urtaro-eraginak kenduta, prezio konstanteetako salmentak % 0,4 igo dira ekainean.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-artereko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Hiletik hilerako salmentek gora egin dute bi sektoreetan: *Elikaduran*, % 0,2, eta, *Gainerako produktuetan*, % 0,6.

Urtetik urterako ehunekoetan, 2023ko ekainean, 2022ko ekainaren aldean, prezio konstanteetako salmenten bilakaera positiboa izan da *Elikaduraren* sektorean, % 2,5 igo baitira. *Gainerako produktuei* dagokienez, ordea, emaitzak negatiboak izan dira: salmentak % 0,2 jaitsi dira iazko ekainarekin alderatuta.

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). Ekaina 2023

	Prezio finkoak		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	1,6	0,4	0,2
Araba/Álava	0,6	1,2	-2,8
Bizkaia	0,2	-0,4	0,8
Gipuzkoa	4,5	1,5	0,4
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Janariak	2,5	0,2	-0,4
Gainerako produktuak	-0,2	0,6	1,1
LANGILERIA-INDIZEA			
Euskal AE	3,2	0,3	4,2

(p) Behinbehineko datuak

m / m-12 Urteko arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

m / m-1 Hilabeteen arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtartetik hiri korrientera arte metatutako aldiaren urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean

Data 2023ko Uztailaren 26a

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan (AHEK)

Azalera handiko saltokietako eta elikadura alorreko kate handietako salmentak igo egin dira lurralde historiko guztietan, urtetik urterako balioetan. Gipuzkoan % 4,5, Araban % 0,6 eta Bizkaian % 0,2 hazi dira, prezio konstanteetan eta lan-egutegiko baldintza homogeneotan.

Aurreko hilaren aldean, hau da, 2023ko maiatzaren aldean, salmentak % 1,5 eta % 1,2 igo dira Gipuzkoan eta Araban, hurrenez hurren; Bizkaian, berriz, % 0,4 jaitsi dira, hiruhilekotik hiruhilekorako balioetan.

Azalera handiko saltokietako eta elikadura alorreko kate handietako langileen kopurua % 3,2 igo da Euskal AEn, 2022ko ekainaren aldean. Aurreko hilaren aldean, langileen indizea % 0,3 igo da.

METATUAREN BALANTZEA, 2023KO EKAINERA ARTE

2023ko lehen sei hilekoan, Azalera handiko saltokietako eta elikadura alorreko kate handietako merkataritza-indizearen hazkunde metatua % 0,2 izan zen, aurreko urteko sei hilekoarekin alderatuta. Sektorizazioari dagokionez, eta aldi bera kontuan hartuta, *Gainerako produktu*etako salmentak gehitu egin dira (% 1,1), eta *Elikadurako*ak gutxitu (% 0,4).

Urtean zehar metatutako aldakuntza positiboa izan da Bizkaian eta Gipuzkoan (% 0,8 eta % 0,4, hurrenez hurren). Araban, aldiz, % 2,8 egin du behera.

Sektoreko landunen indizeak % 4,2ko hazkunde metatua izan du urteko lehenengo sei hiletan.

INFORMAZIO-OHARRA

Urtetik urterako aldakuntzak kalkulatzeko, egutegiaren eraginak zuzenduta dauzkaten serieak hartzen dira oinarri, eta hiletik hilerako aldakuntzak kalkulatzeko, berriz, urtarokotasuna kontuan hartu gabeko serieak.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie “Merkataritza-indizea azalera handiko saltokietan eta elikadura alorreko kate handietan” egiten lagundu diguten establezimendu guztiei. Horiei esker, hil honetako indizea **% 97,4ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62